



**Talentuaren  
mugikortasunari  
buruzko txostena**

**2006, 2007 eta 2008ko  
promozioak**

**UPV/EHU, UDEUSTO eta MU**

U

# AURKIBIDEA

---

<b>HITZAURREA ETA HELBURUAK.....</b>	<b>3</b>
<b>METODOLOGIA.....</b>	<b>6</b>
<b>EMAITZA NAGUSIAK.....</b>	<b>8</b>
Zein da 2006, 2007 eta 2008 urteetan ikasketak bukatu dituztenen profila?.....	<b>9</b>
Zein da hiru euskal unibertsitateetan sortutako talentuaren mugikortasuna? .....	<b>13</b>
Zein aspektu bereizgarri dira talentuaren atzerrirako mugikortasuna azaldu ditzaketenak?.....	<b>25</b>
Zeintzuk dira maila profesional altua duten graduatuen egoerak?.....	<b>37</b>
<b>ONDORIO NAGUSIAK.....</b>	<b>40</b>

# HITZAURREA ETA HELBURUAK

---

## HITZAURREA ETA HELBURUAK

Unibertsitateko pertsonen txertatzearen analisia bizkaia:talent-en jardueraren parte izan da betidanik, talentuaren\* mugikortasunaren ezagutzarako bide bezala eta baita beraren atxikipen eta erakartze estrategia bezala ere.

Ikerketa hau, 2006 2007 eta 2008 urteetan egoitza EAEn duten hiru euskal unibertsitateetan (UPV/EHU, Deustu Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) ikasketak bukatu dituztenen gaineko jakintza garatzeko helburu nagusiarekin sortu da.

Helburu zehatz bezala hauek dira aipagarrienak:

- Hiru euskal unibertsitateetan graduatuen profil demografikoa.
- Hiru euskal unibertsitateetan graduatuen lan profila.
- Hiru euskal unibertsitateetan graduatuen mugikortasuna.
- Graduatuen profil akademikoa mugikortasunaren arabera.
- Graduatuen lan profila mugikortasunaren arabera.
- Graduatuen lanpostuen ezaugarriak mugikortasunaren arabera.
- Graduatuen lanpostuen ezaugarriak mugikortasunaren arabera.
- Enplegu-emaielen ezaugarriak graduatuen mugikortasunaren arabera.
- Graduatuen lanarekiko asebetetzea mugikortasunaren arabera.

Emaitzek erreferentzia egiten diete promozio bakoitzeko graduatuen egoerari, ikerketa honetarako oinarri gisa hartutako unibertsitateetan, ikasketak amaitu eta hiru urte pasa direnean.

Txosten honetan 2006, 2007 eta 2008 urteetako promozioei dagozkien emaitzak azaltzen dira. Hala ere, garapenaren azterketa egiten denean 2005eko promozioa ere kontutan hartzen da.

(\*) RAEk talentu hitzerako darabilen definizioa zuzenean lotzen da inteligentzia eta gaitasunarekin. Beraz, pertsona talentudun batek gaitasuna izango luke arazoak ulertzeko eta iaotasunez, artez eta eskarmentuz berauek konpontzeko. Gainera, pertsona egokia izango litzateke, hau da, gaitasuna izango luke jarduera zehatz batean nahikotasunez lana aurrera ateratzeko, etab ...

Talentua, berezko trebetasunarekin eta sorkuntzarekin lotuta egon ohi da, baina landuz ere lortu daitezkeen ezaugarriak dira.

Hau dela eta, unibertsitateak talentu sortzailatzat hartzen ditugu, ikasleei beharrezko prestakuntza eta gaitasuna ematen dietelako haien etorkizuna txukun eratu ahal izateko.

Beraz, ikerketa honetan zehar, "talentu" adiera erabiliko dugu azterturiko unibertsitateek (UPV/EHU, Deustu Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) eginiko lanaren emaitzari erreferentzia egiteko. Honek ez du esan nahi beraiek soilik dutenik talentua sortzeko gaitasuna EAEn.

## METODOLOGIA

---

## METODOLOGIA

Ikerketaren garapenak hainbat fase ezberdin izan ditu:

- Bbdd eta galdetegiaren gainbegiratzea kodetzeak berdintzeko alderaketak errazteko asmoz.
- Ustiaketa eta azterketa plan baten lantzea.
- Informazioaren azterketa eta informearen lanketa.

Ondoren, ikerketaren fitxa teknikoa:

<b>Unibertsoa:</b>	2006, 2007 eta 2008. urteetako euskal unibertsitateetako graduatuak (N=30.035)
<b>Laginketa:</b>	Errolda bidezkoa.
<b>Laginketa akatsa:</b>	±0,6 KM %95 batentzat.
<b>Lagina:</b>	Guztira 24.017 graduatu 20.981 graduatu mugikortasun profilarerkin. Profil ezberdin hauetaz osatutakoa: lana besteren kontura; lana norberaren kontura; ordaindu gabeko lana; familia laguntza/ familiaren kontura lana; bazkide kooperatibista; bekaduna; langabezian (lehenago egin du lan); langabezian (esperientziaduna) lanean hasteko zain.
<b>Galdeketa datak:</b>	Galdeketa lana unibertsitatean ikasketak bukatu eta hiru urte beranduago egin da: <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2006ko promozioa: 2009</li> <li>• 2007ko promozioa: 2010</li> <li>• 2008ko promozioa: 2011</li> </ul>
<b>Egiaztapenak:</b>	Datuen trinkotasun estatistikoaren egiaztapena.
<b>Galdera-sorta:</b>	Lanbidek landutakoa.

Ikerketan zehar erantzuleen oinarriak aldatu daitezke kasu batzuetan graduatuak ez daudelako erantzuteko moduan eta senideek erantzuten dutelako. Horregatik, ezagutza eta iritzi galdera batzuk erantzun gabe geratzen dira.



## EMAITZA NAGUSIAK

---




## Zein da 2006, 2007 eta 2008 urteetan ikasketak bukatu dituztenen profila?

2006, 2007 eta 2008. urteetako graduatuen profil demografikoa 2005. urteko graduatuen antzekoa da emakumeen nagusitasunari eta 25-29 karrera bukaera adinari dagokionez. Graduatuak kopuru handi batek gainera, lehenengoz aukeratu zuen karrera ikasten jarraitzen du.



Oinarria: Guztira 24.017-k erantzun dute galdera-sorta.

### (elkarrizketa) Unibertsitate-ikasketak egiteko zure lehenengo aukera izan zen?




Oinarria: Guztira 24.017-k erantzun dute galdera-sorta.

Gizarte eta zuzenbide karrerak aukera ranking-aren buruan egoten jarraitzen dute, teknikoek jarraituta.



Oinarria: Guztira 24.017-k erantzun dute galdera-sorta.


Karrera tekniko eta osasunezkoen aukeraketan goranzko joera samurra, besteen gutxitzea eraginez.



Oinarria: 2005 7.771; 2006 8.360; 2007 7.810; 2008 7.847

Gizonezko graduatuek karrera teknikoan alde egiten duten bitartean, emakumezkoek gizarte eta zuzenbide karreraren alde egiten dute, promozio ezberdinetan mantentzen den sexukako ezberdintasuna ezarriz.


### Ezaguza arloak sexuka



Oinarria: graduatu guztiak: 24.017. Gizonezkoak: 9.624; Emakumezkoak: 14.393

Graduatuen artean, gizonezkoek karrera teknikoan alde egiten duten bitartean, emakumezkoek, hein handi batean, gizarte eta zuzenbide karreretara jotzen dute, promozio ezberdinetan eman den sexukako bereizketa mantenduz.

### Ezagutza arloaren garapena sexuka




Oinarria: graduatu guztiak. Gizonezkoak: 2005, 2.973; 2006, 3.375; 2007, 3.108; 2008, 3.141.  
Emakumezkoak: 2005, 4.798; 2006, 4.985; 2007, 4.702; 2008, 4.706

Aurreko promozioekin alderatuz, hizkuntza aukeraketan ezberdintasun nabariak daude; gaztelaniaren presentzia karrera burutzeko hizkuntza bakar bezala gutxituz joan da (%63,6) 2005 urtearekin erkatuz gero (%71,6).

Azken promozioetan ikasketak bukatu dituzten pertsonetatik, ia hamarretik hiruk, beste unibertsitate titulazio bat ikasi dute (erdi mailakoa edota goi mailakoa).


**Baduzu unibertsitateko beste titulaziorik (diplomatura edo lizentziatura)?**



Oinarria: Guztira 24.017-k erantzun dute galdera-sorta

Hala ere, promozioen arteko ezberdintasunik aipagarriena graduatuen lan-egoeran nabari da, non lana dutenen kopuruaren beherakada adierazgarria den: 2005ean %86,6; 2006an %80,1, 2007an %79,6 eta 2008an %76,9.

	2005	2006	2007	2008
Lana besteren kontura	%79,3	%73,5	%71,9	%68,8
Lana norberaren kontura	%4,0	%3,2	%3,4	%3,8
Bekaduna	%2,3	%2,4	%3,4	%3,7
Kooperatibako bazkidea	%0,9	%1,0	%0,8	%0,5
Familia laguntza/ familiaren kontura lana	%0,1	%0,0	%0,1	%0,1
Ordaindu gabeko lana	%0,1	%0,0	%0,1	%0,1
<b>LANEAN DAUDENAK</b>	<b>%86,7</b>	<b>%80,1</b>	<b>%79,7</b>	<b>%77,0</b>
Langabezian (eskarmenturik gabe)	%1,7	%5,2	%4,2	%4,6
Langabezian (lehenago egin du lan)	%4,3	%6,1	%6,3	%7,6
Langabezian (esperientziaduna) lanean hasteko zain	%0,7	%1,1	%2,4	%2,1
<b>LANGABEZIAN</b>	<b>%6,7</b>	<b>%12,4</b>	<b>%12,9</b>	<b>%14,3</b>
Ikasten darrai	%6,2	%7,2	%7,3	%8,3
Senide baten arduradun/ ordainsaririk gabeko lana	%0,2	%0,1	%0,2	%0,2
Ezindua, Erretiraturua, etab...	%0,1	%0,1	%0,2	%0,1
Ed/Ee	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0
Guztira	%100	%100	%100	%100
Oinarria	7771	8360	7810	7847



## Zein da hiru euskal unibertsitateetan sortutako talentuaren mugikortasuna?


Hiru unibertsitateetako graduatuen mugikortasuna aztertzean, ikasleen mugimendu ezberdinen arabera sailkapen bat egin da. Horretarako, lanpostuaren kokapena hartu da kontutan eta ez bizilekuarena, talentuaren mugikortasuna, erakargarritasuna edota irainkortasuna lan-mugimendua erreferentziatzat hartuta neurtu behar delako eta ez bizileku mugimendua.

Kasu honetan, azterketaren oinarritzat lehengo edo gaurko lanbideak erabili dira profil hauen barruan: lana besteren kontura; lana norberaren kontura; ordaindu gabeko lana; familia laguntza/familiaren kontura lana; bazkide kooperatibista; bekaduna; langabezian (lehenago egin du lan); langabezian (esperientziaduna) lanean hasteko zain.


Aurrekoa kontutan hartuz, nabari da, nahiz eta azkeneko promozioetarako lan egoera zailagoa izan, honek ez duela inolako eraginik izan graduatuak EAetik kanpo joatearen portzentajeetan; aitzitik, portzentaje horren beheranzko joera samurra nabari da azkeneko promozioetan. Hala, 2005. urteko graduatuen %11,7 EAetik atera den bitartean, 2008ko promozioen portzentaje hau %9,7ra murrizten da.

Bestalde, EAeko lan-merkatua gai da hiru euskal unibertsitateetan graduatutakoen %81,6 atxikitzeko (eta euskal graduatuen %88,5a), portzentaje hau apur bat igoz 2005eko promozioarekin erkatuz.

Aipatu behar da, EAeko lan-merkatua ez dela gai kanpoko graduatuen %7,8a atxikitzeko; haien jatorrizko tokira itzultzen dira edota beste alde batera joaten dira lanera.



### Mugikortasunaren garapena promozio ezberdinetan



Oinarria: Lana dutenak: 2005, 7.133; 2006, 7.306; 2007, 6.889; 2008: 6.786.

Madrilek jarraitzen izaten du, nahiz eta neurri txikiagoan, euskal talentuaren portzentaje handi bati probetxua ateratzen dion probintzia (%38,4, zeina graduatu kopuruaren %4 den). Urrutira, Kataluniak jarraitzen dio eta atzerriari dagokionez, Erresuma Batuak.


Beste egoera batean dauden graduatuei dagokienez, Nafarroa da jatorrizko probintzia eta %33a (totalaren %2,6) bertara itzultzen dira; berriz ere Madrilek jarraitua %17,9arekin (totalaren %1,4).

### Lanaren esparru geografikoa (bizitokia aldatu bada edo ez).

	Irainkortasuna		Kanporako mugikortasuna		Beste egoera batzuk		Guztira
	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	
<b>Bizkaia</b>	%52,9	%43,2	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%43,2
<b>Gipuzkoa</b>	%32,7	%26,7	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%26,7
<b>Araba</b>	%14,3	%11,6	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%11,6
<b>Madril</b>	%0,0	%0,0	%38,4	%4,0	%17,9	%1,4	%5,4
<b>Nafarroa</b>	%0,0	%0,0	%7,1	%0,7	%33,1	%2,6	%3,3
<b>Beste Erkidego batzuk</b>	%0,0	%0,0	%9,9	%1,0	%11,9	%0,9	%2,0
<b>Katalunia</b>	%0,0	%0,0	%11,7	%1,2	%6,5	%0,5	%1,7
<b>Kantabria</b>	%0,0	%0,0	%1,6	%0,2	%11,4	%0,9	%1,1
<b>Europatik kanpo</b>	%0,0	%0,0	%6,7	%0,7	%2,1	%0,2	%0,9
<b>Erresuma Batua</b>	%0,0	%0,0	%6,2	%0,7	%1,5	%0,1	%0,8
<b>Europako beste lurralde</b>	%0,0	%0,0	%5,4	%0,6	%1,5	%0,1	%0,7
<b>Burgos</b>	%0,0	%0,0	%1,4	%0,1	%5,4	%0,4	%0,6
<b>Errioxa</b>	%0,0	%0,0	%1,9	%0,2	%5,1	%0,4	%0,6
<b>Alemania</b>	%0,0	%0,0	%3,5	%0,4	%0,5	%0,0	%0,4
<b>Frantzia</b>	%0,0	%0,0	%2,3	%0,2	%1,6	%0,1	%0,4
<b>Estatu Batuak</b>	%0,0	%0,0	%2,0	%0,2	%0,9	%0,1	%0,3
<b>Baleareak</b>	%0,0	%0,0	%0,8	%0,1	%0,4	%0,0	%0,1
<b>Italia</b>	%0,0	%0,0	%0,8	%0,1	%0,3	%0,0	%0,1
<b>Ed/Ee</b>	%0,1	%0,1	%0,1	%0,0	%0,0	%0,0	%0,2
<b>Guztira</b>	%100,0	%81,6	%100,0	%10,5	%100,0	%7,8	%100,0
Oinarria	17118	20981	2200	20981	1640	20981	20981


Euskal graduatuen mugikortasunean, azpimarragarria da atzerrira lan egitera joatearen goraldia – 2005ean %21,1 (gutzizkoaren %2,5), 2006an %22,8 (gutzizkoaren %2,6), 2007an %27,6 (gutzizkoaren %2,8) eta 2008an %31,1 (gutzizkoaren %3)- Erresuma Batua izanik indar handiena duen lurraldea.

Atzerriko lurraldeen goraldiak, autonomia erkidegoen beheraldia suposatzen du lan egiteko toki bezala.



Oinarria: Lana dutenak: 2005 835; 2006, 833; 2007, 708; 2008: 659

**Kanporako mugikortasunaren lantokiak (zenbaki absolutuak)\***




Oinarria: Lana dutenak: 2005 835; 2006, 833; 2007, 708; 2008: 659

(\*) Ohar metodologikoak: zenbaki absolutuek laginaren osotasunari egiten diote erreferentzia, baina kontutan izan behar da hau ez dela ikerketako unibertsoaren guztizkoa (ikus metodologia)

Promozio bakoitzean lana duten graduatuen guztizkoan, beste autonomia erkidegoetara mugikortasuna 2005eko %8tik 2008ko %5,6ra jaitsi da, Europara mugikortasuna garai berean %1,6tik %2,1era igo den bitartean.

### Kanporako mugikortasunaren lan tokia (graduatuaren guztizkoan)




Oinarria: Lana dutenak: 2005 7133; 2006, 7306; 2007, 6889; 2008: 6786

2005 eta 2007 promozioen artean, graduatuen barruan gizonezkoak izan dira atzerrira lanera joan direnak, baina azkeneko promozioan, emakumezkoen portzentajeak gizonezkoena berdintzen du (%31,8 gizonezko eta %30,9% emakumezko).

	2005		2006		2007		2008	
	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume
<b>Madril</b>	%47,2	%38,8	%46,0	%35,2	%42,2	%32,7	%39,4	%35,4
<b>Katalunia</b>	%10,4	%13,8	%8,0	%15,5	%9,6	%15,2	%10,6	%10,4
<b>Beste Erkidego batzuk</b>	%11,9	%13,8	%12,2	%11,8	%6,5	%10,7	%7,7	%9,5
<b>Nafarroa</b>	%7,0	%5,6	%6,9	%6,6	%6,5	%9,9	%5,8	%7,2
<b>Europatik kanpo</b>	%7,0	%4,9	%6,1	%5,9	%9,1	%5,4	%8,3	%6,1
<b>Erresuma Batua</b>	%3,6	%5,8	%3,7	%3,5	%9,1	%5,6	%8,3	%8,4
<b>Europako beste lurralde bat</b>	%4,1	%5,1	%5,3	%5,9	%4,5	%5,6	%6,1	%4,6
<b>Alemania</b>	%2,1	%1,6	%2,7	%2,6	%4,5	%3,7	%2,9	%4,9
<b>Frantzia</b>	%1,0	%2,4	%3,2	%2,2	%1,7	%1,7	%2,6	%2,6
<b>Estatu Batuak</b>	%1,6	%1,6	%2,4	%1,3	%1,7	%1,4	%2,6	%2,9
<b>Errioxa</b>	%1,6	%1,8	%1,3	%3,7	%1,1	%3,1	%0,6	%0,9
<b>Kantabria</b>	%1,0	%2,4	%0,5	%2,6	%0,8	%2,3	%1,3	%2,0
<b>Burgos</b>	%1,0	%0,9	%0,0	%1,5	%1,1	%2,0	%2,2	%1,7
<b>Balearrak</b>	%0,3	%0,4	%0,8	%1,1	%0,6	%0,6	%0,0	%1,7
<b>Italia</b>	%0,0	%0,9	%0,8	%0,4	%0,8	%0,3	%1,0	%1,4
<b>Ed/Ee</b>	%0,3	%0,2	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,6	%0,3
<b>Guztira</b>	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100
Oinarria	386	449	376	457	353	355	312	347




EAetik ateratzen diren graduatuen profilak berdintasun handia erakusten du sexuka, gizonetzkoena apur bat altuagoa den arren. (emakumezkoen gaitetik 3 puntu portzental).



Oinarria: 20.981. Lana duten pertsonak: Irainkortasuna 17.118; Kanporako mugikortasuna 2.200; Beste egoera batzuk 1.640  
Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak,  $p < 0.000$

Promozio ezberdinetan, sexuka, mugikortasun profilek berdintsu diraute.




Oinarria: 2005: G 2741; E 4392; Guzt. 7133; 2006: G 2894, E 4412, Guzt. 7306; 2007: G 2764, E 4125, Guzt. 6889; 2008: G 2692, E 4094, Guzt. 6786

Ezagutza arloak kontutan izanda, ezberdintasunak ere samurrak dira, gizarte eta zuzenbide karreretan izan ezik, hauen kanporanzko mugikortasunak beheranzko joera duelako. Beste arlo guztietan, aldaketa gehiago daude, bai gorantz eta bai beherantz, promozio ezberdinetan zehar. Hala ere, karrera tekniko edo esperimentalak dira


portzentaje altuagoak erakusten dituztenak EAETik ateratzen diren graduatuen artean, batez ere azkeneko bi promozioetan.

### Kanporako mugikortasunaren garapena ezagutza arloka (%)




Oinarria: lana duten pertsonak. Gizarte eta zuzenbidea: 2005 3645, 2006 3634, 2007 3326, 2008 3251; Teknikoak: 2005 2117, 2006 2332, 2007 2274, 2008 2227; Humanitateak: 2005 511, 2006 510, 2007 479, 2008 462; Osasuna: 2005 396, 2006 412; 2007 412, 2008 500; Esperimentalak: 2005 464, 2006 418, 2007 398, 2008 346

### Ezagutza arloka, kanporako mugikortasunaren garapena (zenbaki absolutuak)\*



(\*) Ohar metodologikoak: zenbaki absolutuek laginaren osotasunari egiten diote erreferentzia, baina kontutan izan behar da hau ez dela ikerketako unibertsoaren guztizkoa (ikus metodologia)


Orokorrean, emakumezkoek kanporanzko mugikortasun handiagoa dute karrera teknikoetan, EAetik ateratzen diren gizonzkoen artean, beste arlo guztiak nagusitzen diren bitartean.



Oinarria: Esperimentalak: G 323, E 839, Guzt. 1162; Teknikoak: G 4696, E 2137, Guzt. 6833; Osasuna: G 195, E 1129, Guzt. 1324; Gizarte eta Zuzenbidea: G 2732, E 7479, Guzt. 10211; Humanitateak: G 404, E 1047, Guzt. 1451; Guztira: G 8350, E 12631, Guzt. 20981.

Gizarte eta zuzenbide karreraren aukeraketa beherantz doa promozio ezberdinetan lana duten emakumezkoen artean, eta baita lan arrazoiengatik EAetik kanpora ateratzen diren emakumezko graduatuen portzentajea ere. Aitzitik, karrera tekniko eta osasunezkoetan gorakada nabaria dago, nahiz eta mugikortasunaren garapen argirik ez egon. Hala eta guztiz ere, ikasketa teknikoak aukeratzen dituzten emakumeek erakusten dute kanporanzko mugikortasunaren portzentaje altuagoa.

**Emakumezkoen %a ezagutza arloka eta kanporako mugikortasunaren %a ezagutza arloka**




Bizkaia-talent - Parque Tecnológico de Bizkaia - EITB - Mod. 300 - 48160 Derio - 94 479 54 28 - 19 de 44

Oinarria	2719	2654	2442	2383	632	735	692	710	379	370	352	325	332	345	352	432	330	308	287	244
Oinarria urteka: lana duten emakumeak.	2005, 4.392; 2006, 4.412; 2007,4.125; 2008, 4.094																			

Gizonezkoei dagokienez, karrera teknikoetan, haien lehenengo aukera, aldaketa txikiak dituen garapena ikus daiteke, ikasketa hauek dituztenen portzentajeak behera egiten duen bitartean, gizarte eta zuzenbide karreretan gertatzen den bezalaxe. Beste ezagutza arloak berriz, gutxiengoaren aukera dira eta promozio ezberdinetan kanporantzko mugikortasunean, irregulartasun handia erakusten dute.

**Gizonezkoen %a ezagutza arloa eta kanporako mugikortasunaren %a ezagutza arloa**




Oinarria urteka: lana duten gizonek. 2005, 4.392; 2006, 4.412; 2007,4.125; 2008, 4.094

Laburbilduz, gizarte eta zuzenbide karreretako graduatuen artean, beharrezko joera dago EAetik ateratzeko, beste ezagutza arlo guztietan joera argirik ez dagoen bitartean.

Gizarte eta zuzenbide, osasun eta karrera esperimentalak ikasi dituztenen artean, kanporantzko mugikortasun handiagoa dago gizonezkoetan emakumezkoetan baino.

**Ezagutza arloa eta mugikortasuna sexuka**



Oinarria: gizonetzkoa	926	980	884	868		1485	1597	1582	1517		132	140	127	137		64	67	60	68		134	110	111	102
Oinarria: emakumezkoa	2719	2654	2442	2383		632	735	692	710		379	370	352	325		332	345	352	432		330	308	287	244
Oinarria: guztira	3645	3634	3326	3251		2117	2332	2274	2227		511	510	479	462		396	412	412	500		464	418	398	346

Mugikortasun profilen arteko distantzia handitu egiten da profil akademikoaren arabera aztertzen direnean. Horrela, EAetik kanpora ateratzen diren graduatuen profila karrera teknikoak ikasteagatik nabarmentzen da, graduatutako guztien portzentajearen gainetik ipintzeraino (%39,8).

### Ezagutza arloa

	Irainkortasuna		Kanporako mugikortasuna		Beste egoera batzuk		Guztira
	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	
<b>Gizarte eta Zuzenbidea</b>	%49,6	%40,5	%41,3	%4,3	%48,7	%3,8	%48,7
<b>Teknikoak</b>	%32,2	%26,3	%39,8	%4,2	%26,5	%2,1	%32,6
<b>Humanitateak</b>	%6,4	%5,2	%6,5	%0,7	%13,2	%1,0	%6,9
<b>Osasuna</b>	%6,7	%5,4	%5,5	%0,6	%3,8	%0,3	%6,3
<b>Esperimentalak</b>	%5,1	%4,2	%7,0	%0,7	%7,9	%0,6	%5,5
<b>Guztira</b>	%100,0	%81,6	%100,0	%10,5	%100,0	%7,8	%100,0
Oinarria	17118	20981	2200	20981	1640	20981	20981

Oinarria: lana duten pertsonak  
 Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak,  $p < 0.000$




### Ezagutza arloaren garapena KANPORAKO MUGIKORTASUNA

	2005		2006		2007		2008	
	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean	Profil osoaren gainean	Lana dutenen gainean
<b>Gizarte eta Zuzenbidea</b>	50,9%	6,0%	43,6%	5,0%	42,7%	4,4%	37,0%	3,6%
<b>Teknikoak</b>	33,3%	3,9%	39,5%	4,5%	39,3%	4,0%	40,8%	4,0%
<b>Humanitateak</b>	7,3%	0,9%	6,5%	0,7%	4,9%	0,5%	8,0%	0,8%
<b>Osasuna</b>	4,0%	0,5%	4,8%	0,5%	4,8%	0,5%	7,0%	0,7%
<b>Esperimentalak</b>	4,6%	0,5%	5,6%	0,6%	8,3%	0,9%	7,1%	0,7%
<b>Guztira</b>	100,0%	11,7%	100,0%	11,4%	100,0%	10,3%	100,0%	9,7%
Oinarria	835	7133	833	7306	708	6889	659	6786


Ikasitako karreraren garapenari dagokionez, gizarte eta zuzenbidean beherakada nabaria da euskal graduatuen artean, nabarmenagoa EAetik ateratzen direnetan; 2005-2008 artean berriz, karrera teknikoek indarra hartzen dute, batez ere azken profil honetan.

Hau dela eta, kanporanzko mugikortasunean profil teknikoa gailentzen da, EAEn eta haien jaioterrira itzultzen direnen artean gizarte eta zuzenbide profila gailentzen den bitartean.

**Ezagutza arloaren aukeraketaren garapena mugikortasun profilaren arabera**



**Ezagutza arloaren aukeraketaren garapena mugikortasun profilaren arabera (lana duten guztien artean)**



Oinarria: lana duten guztiak 2005 7133; 2006 7306; 2007 6889; 2008 6786

Aurretik ikusi den bezala, sexuak ezberdintasunak ezartzen ditu aukeratutako karreraren tipologian (gizonezkoen portzentaje altu batek karrera teknikoak aukeratzen ditu eta emakumeek gizarte eta zuzenbide karreretara jotzen dute). Hala ere, ezberdintasun

hauek alda daitezke mugikortasun profilaren arabera. Hala, 2006-2008 promozioetako emakumezko eta gizonezkoen arteko gap-a murriztu egiten da EAetik ateratzen diren graduatuen artean (karrera teknikoen aukeraketan %56a gizonezkoak eta %25,3a emakumezkoak dira) eta areagotu egiten da haien jaioterrira itzultzen diren graduatuen

artean (karrera teknikoen aukeraketan %51,6a gizonezkoak eta %10,3a emakumezkoak). Bi profil hauen arteko ezberdintasunak promozio ezberdinetan zehar mantentzen dira

**Ezagutza arloaren garapena eta ezberdintasunak sexuka  
KANPORAKO MUGIKORTASUNA**

	2005		2006		2007		2008	
	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume
<b>Gizarte eta Zuzenbidea</b>	%38,1	%61,9	%34,3	%51,2	%31,2	%54,1	%27,9	%45,2
<b>Teknikoak</b>	%51,3	%17,8	%55,1	%26,7	%56,1	%22,5	%57,1	%26,2
<b>Humanitateak</b>	%4,1	%10,0	%3,2	%9,2	%4,5	%5,4	%4,5	%11,2
<b>Osasuna</b>	%1,3	%6,2	%2,4	%6,8	%3,4	%6,2	%3,8	%9,8
<b>Esperimentalak</b>	%5,2	%4,0	%5,1	%6,1	%4,8	%11,8	%6,7	%7,5
<b>Guztira</b>	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100
Oinarria	386	449	376	457	353	355	312	347

**Ezagutza arloaren garapena eta ezberdintasunak sexuka  
BESTE EGOERA BATZUK**

	2005		2006		2007		2008	
	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume
<b>Gizarte eta Zuzenbidea</b>	%29,6	%55,1	%34,7	%58,1	%30,6	%60,5	%34,2	%56,7
<b>Teknikoak</b>	%51,2	%11,9	%49,2	%9,7	%55,9	%8,7	%50,7	%12,5
<b>Humanitateak</b>	%9,9	%16,7	%9,7	%17,4	%5,9	%16,6	%7,8	%15,5
<b>Osasuna</b>	%1,9	%4,0	%3,0	%2,4	%2,2	%4,8	%1,4	%7,3
<b>Esperimentalak</b>	%7,5	%12,4	%3,4	%12,4	%5,4	%9,3	%5,9	%7,9
<b>Guztira</b>	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100
Oinarria	213	354	236	339	186	332	219	328

Bestalde, gizarte eta karrera teknikoetan, emakume eta gizonen pisuaren garapenak ezberdintasunen bat erakusten du mugikortasun profilaren arabera. Gizonezkoek (promozio guztietan) gizarte karreretan indar handiagoa dute EAetik kanpo ateratzen direnen artean. Berdintasunezko ildo honetan, emakumezkoek (EAEn geratu edo bertatik atera), karrera teknikoetan indar handiagoa dute haien jaioterrira itzultzen direnak baino.

		Irainkortasuna				Kanporako mugikortasuna				Beste egoera batzuk			
		Gizon	Emakume	Guztira	Oinarria	Gizon	Emakume	Guztira	Oinarria	Gizon	Emakume	Guztira	Oinarria
2005	<b>Teknikoak</b>	69,8%	30,2%	%100	1678	71,2%	28,8%	%100	278	72,2%	27,8%	%100	151
	<b>Gizarte eta Zuzenbidea</b>	24,1%	75,9%	%100	2961	34,6%	65,4%	%100	425	24,4%	75,6%	%100	258
2006	<b>Teknikoak</b>	68,7%	31,3%	%100	1848	62,9%	37,1%	%100	329	77,9%	22,1%	%100	149
	<b>Gizarte eta Zuzenbidea</b>	25,5%	74,5%	%100	2982	35,5%	64,5%	%100	363	29,4%	70,6%	%100	279
2007	<b>Teknikoak</b>	68,7%	31,3%	%100	1863	71,2%	28,8%	%100	278	78,2%	21,8%	%100	133
	<b>Gizarte eta Zuzenbidea</b>	25,9%	74,1%	%100	2766	36,4%	63,6%	%100	302	22,1%	77,9%	%100	258
2008	<b>Teknikoak</b>	68,0%	32,0%	%100	1806	66,2%	33,8%	%100	269	73,0%	27,0%	%100	152
	<b>Gizarte eta Zuzenbidea</b>	25,7%	74,3%	%100	2744	35,7%	64,3%	%100	244	28,7%	71,3%	%100	261

Bestalde, EAEn geratzen direnek edo haien jaioterrira itzultzen direnek, unibertsitateko beste karrera bat dute, EAetik kanpora joaten direnen baino portzentaje altuagoan. EAEn

geratzen direnek, portzentaje altuago batean, beste karrera bat ikastea erabakitzen duten bitartean, kanpora joaten direnek, gradu-ondoko ikasketak burutzeko joera handiagoa dute.

Beste hizkuntza bat ikasteak, ostera, ez du ezberdintasunik ezartzen hiru profiletan.

	<b>Irainkortasuna</b>	<b>Kanporako mugikortasuna</b>	<b>Beste egoera batzuk</b>	<b>Guztira</b>
<b>Hizkuntzak</b>	%45,0	%43,0	%41,5	%44,5
<b>Gradu ondoko ikasketak</b>	%37,6	%50,6	%47,4	%39,4
<b>Unibertsitateko beste karrera bat</b>	%25,5	%21,4	%21,8	%24,9
<b>Bestelako formakuntza</b>	%13,8	%10,8	%15,0	%13,6
<b>Arautu gabeko bestelako formakuntza</b>	%12,6	%11,2	%13,9	%12,5
<b>Informatika</b>	%10,3	%9,7	%10,0	%10,3
<b>Lanbide heziketako zikloa</b>	%4,8	%2,0	%3,8	%4,5
<b>Enpresen kudeaketa, autoenplegua</b>	%2,9	%3,0	%3,7	%3,0
<b>Ed/Ee</b>	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0
Base	11654	1147	1068	13886

Oinarria: Heziketa okupazional, jarrai edota gradu-ondoko ikasketak egin dituzten pertsonak.  
Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak,  $p < 0.000$



## Zein aspektu bereizgarri dira talentuaren atzerriko mugikortasuna azaldu ditzaketenak?

Talentua EAetik kanpora mugitzea baldintzatzen duten aspektuak zeintzuk diren jakiteko, egindako lehenengo azterketak profilen arteko ezberdintasunak antzematera bideratu dira, kausa-ondorio azalpen bat bilatu nahirik. Aspektu hauek bi ikuspuntu ezberdinetatik aztertu dira:

- Lan-baldintzen ikuspuntutik.
- Enplegu-emaile den enpresaren profilaren ikuspuntutik.

### **Lan-baldintzei dagokienez, alor hauetan daude ezberdintasun nagusiak:**


Hasteko, EAetik kanpo joaten diren graduatuen kontratuzko harremana egonkorragoa da (%61,1 dira mugagabeko kontratuak geratzen direnen %43,1aren aurrean). Estatuko jomugak dira ezberdintasun hau sortzen dutenak, atzerriko jomugek eskaintzen dituzten mugagabeko kontratuen portzentaje EAEn dagoenaren antzekoa baita (%42,6) bekek indarra hartzen duten bitartean (%38,1).

### Kontratu motak

	Irainkortasuna	Kanporako mugikortasuna	Beste egoera batzuk	Guztira	Irainkortasuna		
					Estatua	Estatutik kanpo	
<b>K. Mugagabea</b>	%43,1	%61,1	%49,6	%45,1	<b>K. Mugagabea</b>	%63,7	%42,6
<b>K. Mugatua</b>	%46,6	%26,7	%39,9	%44,4	<b>K. Mugatua</b>	%28,0	%15,9
<b>Autonomoa</b>	%4,9	%2,9	%6,0	%4,8	<b>Autonomoa</b>	%3,1	%1,7
<b>Bekaduna</b>	%3,7	%8,6	%4,0	%4,1	<b>Bekaduna</b>	%4,6	%38,1
<b>Bazkide Koopetatibista</b>	%1,3	%0,3	%0,1	%1,1	<b>Bazkide Koopetatibista</b>	%0,2	%1,1
<b>Kontraturik gabe</b>	%0,2	%0,2	%0,3	%0,2	<b>Kontraturik gabe</b>	%0,2	%0,6
<b>Besteak</b>	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	<b>Besteak</b>	%0,0	%0,0
<b>Ed/Ee</b>	%0,2	%0,3	%0,1	%0,2	<b>Ed/Ee</b>	%0,3	%0,0
<b>Guztira</b>	%100	%100	%100	%100	<b>Guztira</b>	%100	%100
Oinarria	14818	1474	1342	17639	<b>Guztira</b>	1295	176

Oharra: kontratu motaren oinarriak aldatu egiten dira lana dutenek zein haien senideek erantzuten dutelako (denek ez): lana besteren kontura; lana norberaren kontura; ordaindu gabeko lana; familia laguntza/familiaren kontura lana; bazkide kooperatibista; bekaduna. Ez dute erantzuten: langabezian (lehenago egin du lan); langabezian (esperientziaduna) lanean hasteko zain.  
Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak,  $p < 0.000$


Lanaldian ere ezberdintasunak hautematen dira EAetik kanpora ateratzen diren graduatuetan, lanaldi osoa disfrutatzen dutenen portzentajea bestea baino ia 10 puntu gainera dago.



Oinarria: 20.981. Lana duten pertsonak: Irinkortasuna 17.118; Kanporako mugikortasuna 2.200; Beste egoera batzuk 1.640  
Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak,  $p < 0.000$

Soldatari dagokionez, hala ere, nahiz eta azken profil honetako batzbestekoa altuagoa izan, ezberdintasunak oso txikiak dira.

Lau promozioetako soldataren joera oso antzekoa da mugikortasun profilak ezberdinak izan arren; 2005etik 2006ra igo egin zen eta hortik aurrera, nabarmenki murriztu zen. 2008ko promozioak ezberdintasunak ezartzen ditu, 2006ko mailak berreskuratzen ditu EAetik ateratzen diren graduatuen artean.



Ezberdintasun azpimarragarrienak gizon eta emakumeen artean ematen dira bai profil ezberdinetan baita promozio ezberdinetan ere. Orokorrean, emakumezkoek gizona baino %6,5 gutxiago kobratzen dute, nahiz eta dagoen ezberdintasun hau txikiagoa den EAEn gelditzen direnen eta kanpora ateratzen diren graduatuen artean (sexuen arteko ezberdintasuna %5a da, EAEtik kanpo berriz %10 baino gehiago).

**Hileroko soldataren garapena (14 ordainsari. Lanaldi osoa) eta sexuen arteko ezberdintasunak**  
**GUZTIRA**



	2005			2006			2007			2008		
	Gizon	Emakume	Guztira	Gizon	Emakume	Guztira	Gizon	Emakume	Guztira	Gizon	Emakume	Guztira
<b>Irainkortasuna</b>	1547,27	1424,15	1471,9	1598,57	1523,28	1553,32	1533,39	1446,19	1482,57	1522,53	1441,49	1475,19
<b>Kanporako mugikortasuna</b>	1680,99	1448,89	1552,81	1751,93	1521,27	1620,35	1676,46	1444,51	1559,38	1649,42	1582,79	1616,03
<b>Beste egoera batzuk</b>	1561,83	1355,33	1435,58	1662,96	1428,44	1527,77	1538,95	1361,18	1427,73	1546,93	1358,04	1438,28
<b>Guztira</b>	1564,88	1422,50	1478,61	1620,55	1516,07	1558,29	1550,67	1439,28	1486,27	1537,55	1446,02	1484,84

Lanposturako egokitasunaren azterketak mugikortasuna duten graduatuen aldeko portzentajeak erakusten ditu (ia 8 puntu) lana lortzeko, unibertsitateko tituluaren eskaeraren gainetik eta baita eskatutako mailaren eginkizunak betetzeko gaitasunaren gainetik ere.

Haatik, lanpostuaren eta burututako ikasketen arteko harremana altua eta antzekoa da mugikortasuneko hiru profiletan.


**Unibertsitate ikasketen eskaera**

**Formakuntzaren berezko betebeharrak**



Oinarria: 20.981. Lana duten pertsonak: Irainkortasuna 17.118; Kanporako mugikortasuna 2.200; Beste egoera batzuk 1.640  
Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak, p<0.000

**Badu (edo bazuen) lan honek harremanik zure unibertsitate ikasketekin?**




Oinarria: 20.981. Lana duten pertsonak: Irainkortasuna 17.118; Kanporako mugikortasuna 2.200; Beste egoera batzuk 1.640. Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak,  $p < 0.007$

Euskara da hizkuntzarik erabiliena hiru euskal unibertsitateetako graduatuen artean, goranzko garapenarekin, lanean egunero edo usu erabiltzen den hizkuntza izanik EAEn geratzen diren graduatuen %52,8en artean eta EAetik kanpo haien jaioterrira itzultzen diren %21,7en artean (graduatu nafarrak).

